

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 1378

GAIA: Dirulaguntza: Ezkurtxo Marinen ipuin kontari 2023

ESPEDIENTEA: 2023UDIR0005

INTERESDUNA: Arizmendi ikastola, Koop. E.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 1.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du Arizmendi ikastola, Koop. E.-ren alde, 2023. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura teknikariak egindako proposamenaren arabera, idazkaritza-kontuhartzaitza egindako fiskalizazio txostena kontutan izanda, eta dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6. artikulua emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta Arizmendi ikastola, Koop. E. elkartearen artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- Arizmendi ikastola, Koop. elkarteari 1.000,00 €-ko dirulaguntza ematea, 2023. urtean antolatuko duen EZKURTZO MARINEN egitasmoak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren seigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren % 60a ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 1.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.471.334.40.01 partidari egozte.